

# Noqua!!!

H A M A B O S K A R I A

2001eko ekainaren 29a VI urtea

Usurbil, 116. zenbakia



Santixabelak  
begibistan

*Santixabel jai zoriontsuak opa dizkizuegu  
usurbildar guztiei, baita kanpotik  
hurbiltzen zaretenoi ere.  
Besarkada bero bat gure preso,  
errefuxiatu eta deportatuei.*



USURBIL



## Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Oihana!** Ekainaren 23an izan zen zure urtebetze eguna, 17 hain zuzen ere. Ondo pasako zenuelakoan muxu handi bat etxekoan partez.



Uztailaren 1ean 14 urte beteiko dituzunez, zorionak **Mikel!** Herriko festekin batera ospatuko dugu. Ondo pasako duzulakoan muxu handi bat etxekoan partez.



Urteak aurrera joan arren, egunetik egunera gazteago zaude ama. Jarraitu urte askoan zure-zurea duzun bizipozarekin. **Zorionak ama!** Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak **Amaia eta aitona,** lehenengoak uztailaren 1ean du urtebetetzea eta bigarrenak 3an. Familia guztiaren partez, berriz ere Zorionak.



1976ko uztailaren 6an, San Ferminetako txupinazoarekin batera, herrian gertaera garrantzitsua eman zen. Batek nahikoa zalaparta ateratzen ez eta bi izan! **Zorionak Igor eta Mikel,** erronda horren zain gaude.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: uztailak 13

Ekartzeko azken eguna: uztailak 6

## Hildakoak



2001-06-18  
**Alejandra Barrero  
Fernandez**  
90 urte  
Muna Lurra



2001-06-20  
**Silvestra Herrero  
Sanchez**  
81 urte  
Espaldi-berri

## Eusko Tren-en udako autobus ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
07.40	08.05	08.25	07.15	07.35	08.00
08.00	08.25	08.35**	07.45	08.05	08.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
08.40	09.05	09.25	08.15	08.35	09.00
09.00	09.30	09.40*	08.45	09.05	09.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
09.40	10.05	10.25	09.20**	09.30	10.00
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
10.40	11.05	11.25	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.20*	10.30	11.00
11.40	12.05	12.25	10.45	11.05	11.30
12.00	12.25	12.35**	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
12.40	13.05	13.25	11.45	12.05	12.30
13.00	13.30	13.40*	12.45	13.05	13.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
13.40	14.05	14.25	13.20**	13.30	13.55
14.00	14.30	14.40**	13.45	14.05	14.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
14.40	15.05	15.25	14.20*	14.30	14.55
15.00	15.25	15.40*	14.45	15.05	15.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
15.40	16.05	16.25	15.20**	15.30	15.55
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
16.40	17.05	17.25	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.20*	16.30	16.55
17.40	18.05	18.25	16.45	17.05	16.55
18.00	18.30	18.40*	16.45	17.05	18.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
18.40	19.05	19.25	17.45	18.05	18.30
19.00	19.25	19.35**	18.45	19.05	19.30
19.30	19.55	20.15	18.45	19.05	19.30
19.40	20.05	20.25	19.20*	19.30	19.55
20.00	20.30	20.40*	19.45	20.05	20.30
20.30	20.55	21.15	19.45	20.05	20.30
21.00	21.25	21.45	20.45	21.05	21.30
21.30	21.55	22.15	21.15	21.25	21.55
22.15	22.45	23.05	21.45	22.05	22.30
22.30	22.55	23.15	23.15	23.25	23.35
00.00	00.25	00.45	00.15	00.25	00.35
01.00	01.25	02.45	01.15	01.25	01.35
02.00	02.25	02.45	02.15	02.25	02.35
03.00	03.25	03.45	04.15	04.25	04.35
04.00	04.25	04.45	05.15	05.25	05.35
05.00	05.25	05.45			
06.00	06.25	06.45			

\*Oriaraino    \*\*Aiaraino  
■ Asteburutan

\*Orietik    \*\*Aiatik

■ Asteburutan

## Eusko Tren-en udako tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.47	11.03	11.20	11.08	11.24	11.39
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17	15.33	15.50	15.38	15.54	16.09
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17	16.33	16.50	16.38	16.54	17.09
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17	17.33	17.50	17.38	17.54	18.09
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17	18.33	18.50	18.38	18.54	19.09
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17	19.33	19.50	19.38	19.54	20.09
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.17	20.33	20.50	20.38	20.54	21.09
20.47	21.03	21.20	21.08	21.24	21.39
21.47	22.03	22.20	22.08	22.24	22.39
			22.38	22.54	21.09

\* Astegunetan bakarrik

\* Astegunetan bakarrik

## Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiardo kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larmialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa 37 32 28
- Gure Pakea 37 17 51
- Gure Elkarte 36 63 40
- Arrate egoitza 47 09 76
- Eusko Tren 36 03 21
- Noaua! aldizkaria 37 23 36
- Bake epaitegia 36 12 17
- Oa farmazia 36 33 95
- Iturralde farmazia 37 20 77
- Zubietako Herri Batzarra 47 09 76
- Argindarra (Iberduero)

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02  
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net  
Web orria:  
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

**Kazetarien koordinatzailea**

Josu Aranberri

**Kazetariak**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

**Publizitatea**

Agurtzane Solaberrieta

**Zuzentzailea**

Eneko Harreguy

**Kolaboratzaileak**

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieto, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

**Administrazioa**

Arantxa Usarralde, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

**Erredakzio Kontseilua:**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

**Maketazioa eta diseinua**

Olatz Goenaga, Zalao Arnaiz eta Ibon Beristain.

**Dokumentazioa**

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

**Informatika**

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

**Banaketa**

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale**Lege-Gordailua:** SS-668-96**ISSN:** 1136-6818**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarte  
jendaurreko  
ordutegia:**

**10.00-14.00 / 16.00-20.00  
astegunetan**

# Zer irizten?



## Euskal komunikazio esparrua babestu eta indartu

### Oskar Angulo

#### Euskaldunon Egunkariako langilea

**E**z ditugu une gozoak bizi euskal ikuspegiak dihardugun euskal komunikabideek. Egin, Egin Irratia eta Ardi Beltza itxita, Jon Abril kazetaria auzipetua, Euskal Irratia lizentzia legalik gabe, eta orain Euskaldunon Egunkaria eta Gararen kontrako eraso judiziala ezagutu ditugu. ETAr egindako elkarrizketa aitzaki, Euskal Herrian bertotik informazioa lantzen du-gun komunikabideon jardun profesionala jarri nahi dute auzitan. Martxelo Otamendi eta Mertxe Aizpurua eta hauek zuzentzen dituzten komunikabideen kontra Espainiako Entzutegi Nazionalean jarritako kereilak informazioa eman eta jasotzeko herritarrek duten eskubidea urratzen du.

Bizi dugun gatazkan ETaren ikuspegi ezagutzeak interes informatibo nabarmena dauka, eta horrela erakutsi dute Euskal Herrian zein erbestean berria zabal jaso duten ehundaka komunikabidek. Horrela erakutsi dute haren karian hainbat erreakzio izan dituzten instituzio eta alderdiek. Agerikoa denez, horrek ez du elkarrizketa argitaratu duten komunikabideen jarrera jakin bat azaltzen, irakurleak jakingo du esandakotik bere iritzia eta ondorioak ateratzen. Informazio egiazko eta objektiboa eskaintzea ez da delitua, irakurle eta komunikabideek legeaz aitortua duten eskubidea baizik.

Gertatutakoek, eta honen inguruan argitaratu diren hainbat iritzik, Egunkaria eta oro har euskal esparruko komunikazioa jotzeko eta isilarazteko asmoa erakusten dute, lehen beste komunikabide batzuekin edota euskalgintzan diharduten hainbat erakunderekin egin den modu berean. Horregatik, guztion artean euskal komunikazio esparrua babestu eta indartzeko premia dugu.

Euskalgintzaren ikuspegitik, Nafarroako Gobernuak euskararen kontra daraman ekinbidea edo Iruñeko udalak Egunkariatik publizitate guztia erretiratzea ez dira kasu isolatuak, alde aurretik finkatutako jokabidea baizik. Komunikabide honi, irudi jakin batekin lotu izanagatik, bere ospean eta publizitate merkatuan kalte eragin nahi izana ez da zilegi. Gure hizkuntzak bizi duen egoeran Egunkaria zein euskalgintzan diharduten beste erakundeak amiltze bidean jartzeak euskarari eta Euskal Herriari kalte atzerazekin eragin diezaikeke. Gaur Egunkaria eta Gararen txanda izan da, bihar beste batzuk, euskalgintza zein herri komunikazioan dabilen beste edozeinena izan daiteke.

Garaiz gaude elkarlana bultzatu eta euskal komunikazio esparrua artikulatzeko, presarik gabe baina loak hartu barik. Euskal komunikabideak ezinbestekoak ditugu. Irakur, entzun eta ikus itzazu.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



## Mari Karmen Ayerza

**18 urte zituela kalezartar batekin ezkondu eta Astigarragatik Kalezarko plazaren ondoan dagoen Ezkerranea baserrira etorri zen bizitzera. Oraindik ere bertan bizi da.**



### **Usurbilen urte asko badaramazkizu ere, ez omen zara bertan jaioa.**

Astigarragan jaioa naiz eta 18 urte nituela etorri nintzen Usurbila. Astigarragako baserri batean bizi ginen Kalezartar batekin ezkondu eta Ezkerranea bizitzera etorri nintzen arte. Ikasketak 14 urterekin utzi nituen. Jarraitzeko aukera izan nuen, baina... baserrira lanera.

### **Gogorra egin al zitzaizun Astigarraga utzi eta Usurbila etortzea?**

Hasieran bai, izan ere han familia eta lagunak utzi nituen. Oso ezberdina da. Ez nuen inor eza gutzen, hutsetik hasi behar izan nuen eta hori gogorra da.

### **Nolakoa zen Kalezar garai hartan?**

Duela 30 urte? Oso ezberdina. Zaharra, bidea loiaz betea egoten zen... oraingoarekin zerikusirik ez zuen orduko Kalezar hark. Orain dena berri-tuta dago eta asko aldatu da.

### **Eta zer moduz moldatu zinen Kalezarko jendearekin?**

Ez nuen eta ez dut bertako jendearekin inolako arazorik izan.

### **Kalezartarra edo Astigarragakoa zara?**

Nire bizimodua hemen finkatuta daukat eta inolaz ere ez nintzateke berriz Astigarragara joango.

### **Zer egiten zenuen hona etorri zinenean?**

Baserriko lanak egiten nituen. Ezkerranea baserria izan da orain arte. Duela hiru urte gizona hil zen eta orduan kendu genuen ganadua. Hala

ere, orain dela 12 urte etxetik kanpora lanean hasi nintzen eta hor jarraitzen dut oraindik.

### **Baserriaren gainbehera nabaritu al zen zuenean?**

Bai, pixkanaka-pixkanaka behi edo txekor gutxiago edukitzen genituen. Baina, beno, bu baserriatik bakarrik ez ginen bizi, gizonak Micheline lan egiten zuen eta.

### **Zer moduz pasa dituzu Sanjuanak?**

Ez naiz atera ere egin.

### **Lehen, ordea, festara irtengo zineten ezta?**

Garai batean bai. Orduan bestelakoa izaten zen festa hemen. Nire ustez garai bateko Sanjuanak hobeak ziren...agian orduan gazteagoa nintzelako.

### **Baserrira plazaren ondoan edukita lorik egiten al duzu Sanjuanetan?**

Ez, burruna haundiegia ateratzen dute gaueko dantzaldietan. Logelak plazara begira ditugu eta semea eta biok barrualdean dugun egongelara joan behar izan genuen. Gainera, dantzaldia amaitu ondoren ere ixiltasunik ez genuen izan, altabozetatik musika jarri zuten eta.

### **Bi urtetan Udarregiko haur eskola zen hartan egin ziren festak.**

Orduan lasaitasun haundiagoa izan genuen gauean. Hala ere, nire ustez egunez egiten den festa plazan egitea polita da, baina gaueko burruna...

**Josu Aranberri**

## **ARGILAN**

**Etxetresna elektrikoak**

**Santixabel**  
**zoriontsuak**  
**opa dizkizuegu!**

Kontzeju zaharra, 13  
Usurbil ☎ 36 13 80

## **JOSE AIZPURUA UNANUE**

**Igeltseritza eta pintura**

Teilatuen berritzea



Fatxadaren konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 36 17 83

**Ondo ibili festetan!**

Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 943 36 37 67

## **AGIRREZABAL** **estankoa**

*Jai zoriontsuak  
usurbildar guztioi!!*

Kale nagusia, 27  
Telefona: 36 11 10

# SANTUENEA

Agustin Esnaola



**J**oan den astean, amets gaizto bat eduki nuen. Goizean, esnatu nintzenean, nekakuta nengoela konturatu nintzen eta ez nekien zergatik. Baina denbora asko pasa baina lehenakomturatu nintzen: amets gaizto bat ibili nuen nire buruan denbora luze batetan. Hau da nire amets gaiztoaren istorioa:

XXIV. mendean geunden eta nire auzoak "Santuenea" izena zuen aintzina baserri baten izena izan zelako. Etxebizitzak, oraingo Kursaleko kuboetako itxura zuten, jendea neoprenoeko jantzi arraro batzuekin ibiltzen zen eta kaleetan usai berezia nabarmentzen zen.

Ni ere, auzoen artean aurkitzen nintzen, nire semetxoekin

eta auzotar guztiak bezala, kezka handiena usai berezi horren aurka zerbait egin behar genuela zen. Agintariek ez ziguten jaramonik egiten eta aginte-etxe robotizatu hartatik kalera bidaltzen gintuzten konponbiderik jarri gabe.

Baina, ilunabar batetan, "OVNI" moduko batzuk jeitsi ziren gure auzora. Gure harridurarako, kontainer autogarbitzailer batzuk ziren. Egunero bakkarik garbitu eta usaina kentzen zuten.

Auzoen festa, ez zen txikia izan. Udalak bidalitako "mensajero intergalaktiko" batzuk zirela uste genuen, baina, gure poza laister bukatu zen. "Robokop" antzeko udaltzain talde bat

agertu eta honela esan zien: *"Udal ordenantzaren aurka ari zarete, ezin duzue zakarrrik bildu auzo honetan"*.

Auzoak, kontainerren alde jarri eta udaltzainen aurka azaldu ginen. Guk nahi ditugu!, auzoko usai txarrak kendu digute!

Udaltzainen erantzuna ez zen makala izan: *"Udalbatzak 1980an hartu zuen erabakiaren aurka ari zarete eta erditik kentzen ez bazarete indarra erabili beharko dugu"*.

Auzoak, tristura haundiarekin, erditik alde egin behar izan genuen.

Despertadora saltoka hasi zen, eta nire amets gaiztoa bukatu zen.

# URDAIAGA

Joseba Zubeldia



## Kamioiak bueltaka

**A**urreko aleetan honen berri eman zuten nire auzoek, baina gai honen inguruan zerbait aipatu nahi nuke. Kontua zera da, Andatzako zenbait pinudi botatzen ari direla, eta botatako enborrak garraiatzeko hainbat eta hainbat kamioi dabilzala menditik joan etorrian. Horregatik, hauek sortarazi dezaketen arriskua dela eta, errepideak ez baitira oso zabalak, auzo honetara inguratzen diren guztiei, bai autoz, bai bizikletaz..., inongo ezbeharririk gertatu ez dadin arreta izatea eskatuko nieke.

Kamioi batzuk menditik ateratako enborrak lehen zaborte-

gia zegoen bihurguneraino garraiatzen dituzte bertan pila-tzeko. Ondoren, egur hauek beste kamioi batzuetan kargatu eta zerrategira eramaten dituzte. Beraz, bihurgune horretan izaten diren kargadeskargetan kamioiak ibiltzen dira bueltaka.

Beraz, badakizue, kontuz ibili.



izan ere, eguraldi ederraz lagunduta kaxko honetara lasaitasun bila hurbiltzen direnak asko izaten baitira. Eta

# KALEZAR

Ainara Uribe



## Intxaur lehiaketa

**Z**er moduz pasa dituzue auzoko festa? Ondo esan beharko ezta? Giro ederra izan dugu behintzat. Euri pixkat ere bai, baina ezin kexatuko gara.

Badirudi Kalezarren festa alternatiboak egiteko aukera egon dela, badakizue, jaietako egitarauan dagoena gustokoa ez denean gertatzen den hori. Batzuk, adibidez, "intxaur lehiaketa" antolatu zuten. Honelako lehiaketaren berririk ez al duzue inoiz izan? Esan didatenez ez omen da lehiaketa hau egiten den lehen aldia. Zertan datzan galdetuko duzue askok, ezta? Ba nik esango dizuet: pasealeku ondoan dagoen intxaurren

bati fruitua kendu eta behelaldean dagoen "Iparralde" etxeari intxaur gehien nork bota omen da lehiaketa honen oinarria. Nonbait oso dibertigarria da. Ez dakit zer sari espero zuten, leiho bat puskatu izanaren faktura, persiana batena agian... Nik zera galdetu nahi nieke lehiaketa hartan parte hartu zutenei: ea entrenamendu gogorak egiten dituzten eta non entsaizten duten. Beraien etxeari intxaurrek botaz, agian?

Hurrengo urterako ea ideia berriak ematen dizkieten Kalezarko jai batzordeko kideei. Agian jende gehiagok parte hartu nahiko du txapelketa honetan. Aurretik jakinez gero zergatik ez ba?



# ATXEGALDE

Maria Jesus Urbieta



## Oporretara begira

**U**dan sartuak gara, eta gure haurrak oporrei begira jarriak dituzte bi begiak. Izan ere, Sanjuan, Sanpedro, Santixabel etab.ak gainean ditugu, eta ahalik eta ondoen pasatzeko asmotan dira guztiak. Ikasturteko nekeak atzean utzi

ondoren, pixkat lasaituta atsedena hartzeko gogoia izango zutela jakiteko ez da urrutira joan beharko.

Eta atsedena aipatu dudanez gero, zerbait esan nahi dut: plazan izan ezik, Atxegaldeko

txoko honetan esertzeko aukerik ez dela ikusten. Auzoek eserita egoteko aukerarik ez dute. Eserleku batzuk ez lirateke gaizki etorriko, jarriaz gero eserleku baten bila urrutira joan beharrik gabe zenbait garaitan gerizpean eserita egoteko aukera izango bailukete gure auzoan gelditu nahi dutenek.

Horrez gain, zaborrak botatzeko ontzien falta ere nabarmendu nahi nuke. Sarritan ikusi izan ditugu zabor poltsak lurrean botata, puskatuta, katuak eta zakurren mende. Beraz, hau konpontzeko arduradunak badaudenez, gure txoko hau txukunago egon dadin zerbait egitea proposatu nahi nuke. Auzoek eskertuko genuke.



# TXOKOALDE

Iñaki Labaka



## Antena kontuak

**A**ginagan, kanposantua-aren aldamenean, telebis-ta ongi ikusteko helburuarekin Eusko Jaurlaritzak antena luze bat jarri zuenetik, telebista primeran ikusi dugu auzoan. Gogoratu ordurarte kate pribatuak ikusteko aukerarik ez genuela.

Duela hilebete pasatxo, TVE ko bigarren katearen seinalea indar gutxirekin iristen hasi zen, ondorioz ez genuen ongi ikusten. Beste kate guztiak aldiz arazorik gabe, ederki ikusten ziren. Badakit auzokide batek deituta tekniko bat ibili zela aberia konpontzeko lanetan, baina zaila nonbait eta dirudie-

nez oraindik ez dute konponbiderik aurkitu eta bere horretan jarraitzen dugu, alegia, oso gaizki ikusiaz.

Ez uste, nik behintzat ez, kate hori Carlos Davila edo Pedro Ruiz ikusteko nahi ditudanik, kiroletako emanaldiez gozatzeko baidizik. Xabier Mikelen azken partiduak (zorionak, onena haiz dudarik gabe) erdi ipurdi ikusi ahal izan ditugu, baloia apenas ikusten zen alajaina. Aberia laister konpondu ez ezean, Haimar

Zubeldiak, hurrengo tourrean burutuko dituen exhibizioak ikusten, larri ibiliko gara. Ea Udaletxean edo norbaitek soluzioa aurkitzen dion arazo honi. Berehala mesedez, denok biziki eskertuko diogu.a



# KALEBERRI

Iñaki Agirresarobe



## San Juan eske arrakastatsua

**K**alezar auzoko jaietako Kohitura honek bere ibilbidearen barnean Kaleberrirako joera izaten du su ondoko festa amaitu ostean. Kalezartik arratsaldeko 3.30etan abiatu orduko etxez etxe hainbat orduz ibili ziren **Sustrai Kolina eta Xabier Legarreta** bertsolariak, **Alexander eta Aitor Udabe** trikitilariak eta 30 bat herritar lagun zituztela. Giro ezinhobean jaitsi ziren Kaleberrira 11.30ak aldera.

Hainbat tabernetan ibili ostean, Gure Pakea zahar egoitzan izan zen ezustekorik han-

diena. Bi bertsolariak kantari ari zirela, non eta han bildurik zeudenen artean hasi zen koplaka **Ostapeko Juanita** bere 82 urterekin. Bera ere bertsolari zela aipatu zuen bota zituen lau kopletan. Orduan izan zen gaueko unerik gogoangarriena; giroa berotu, **Ebaristo Pikabea** ere koplaka hasi eta non taldetik Arratzaingo **Jurgi Mendiluzek** ere koplaka erantzun zuen. Bere kasta erakutsiz, inongo lotsarik gabe kantari eta bertsoei erantzunez jardun zen. Jardun txalotua, gainera, taberna jendez lepo eta kan-

potik ere jendea entzuten. Egundoko une gozoa bilakatu zen hau urteko egunik luzeenean. Abestera etorri ziren bertsolariak ere txundituta zeuden begibistan zuten giroa ezin sinetsita.

Eskeak bere ohiko ibilbidea jarraitu zuen eta goizeko lauretan amaitu zen PeOa Pagola elkartearen. Hasi zuten partaide guztiak han ziren aurpegi nekatuarekin, baina umorea soberan bizkar gainean hama bi orduko jarduna izan arren. Ohiko agurren ondoren, nekeak atsedena aurkitu zuen.



# AGINAGA

Maria Angeles Arruti



1951-2001

**O**raingo honetan Aginaga eta Intxaurretako kon-tuak alde batera utzi eta ekai-naren 17an egin genuen baz-kariaz hitz egitera noakizue. Atxega jauregian egin genuen bazkaria ez zen nolana hikoia izan, baina janaria eta edaria han bildutakoez zerbaite esan



nahi nuke. Izan ere, aurten 50 urte bete ditugun 26 emakume bildu ginen bertan.

Aginagarrak eta kaxkokoak ginen gehienak, baina tartean izan genuen Zubietan jaio, gurekin eskolan ibili eta ezkon-du ondoren Leitzara joan zen emakume bat ere. Urte dexen-te generamatzen

bera ikusi gabe, eta aurtengoan bazkari-ra etortzera animatu zaigu; hau meritua andre honena.

Garai bateko "abenturak" kontatuz konturatu baino lehen iritsi zitzaigun mahaitik altxatzeko

ordua. Hala ere, bakoitzak opari txiki bat jaso zuen bertan: lbai Esoain oriotarrak egindako bertso bat "larrosa kapullo" batekin. Bukatzeko, beraz, horra hor gure kintako emaku-meei eskainitako bertsoa:

Berrogei ta hamar urte  
badira jaio ginela  
mende erdi bat pasa da  
bizi bizirik gaudela  
izarren argia eta  
eguzkiaren epela  
pasa dezagun eguna  
izar bagina bezela  
kontu zahar kontu berri  
a zer nolako koktela  
zer hobe hitz egitea  
mahai inguruan garela  
bazkaria egitea  
pentsatu degu horrela  
erakutsiz umoreak  
edaderik ez duela

# ZUBIETA

Karme Urdanpilleta



Hitz lauezko hausnarketa

**U**dako sarreran garela eta oraintxe sartu zaizkigu gure haur eta gazteak bete beteko oporraldietan, beste sasoietan ez bezala kanpora begira, etxetik irten nahia sortzen zaie-larik, eguraldi ona, eskolarik eza, mugitu beharra...

Honela zioen lehengo batean gazte hauetako batek: zuek bai, garai hobeagotan bizi izan zenuten zuen gaztaroa, trantsizio garaietan, beste ilusio, itxaropen, ametsak eta gainera beste kultur garai batetakoak zarete. Hausnarketan ari zitzaidan hitz lauez. Eta nik honela nioen nire baitarako: egia zio/n, beste garai batzuk ziren; berak zioenak izan zuen lekurik gure baitan, dena egiteko eta egiteke zegoelako sentipen

bizia baikenuen sumatzen barrutik. Gure herri honetan, ikastolak sortu, euskara egunoroko bizitzara ekarri, euskal nortasuna lantzeko kantaldiak, bertso saioak antolatu, hitzaldiak prestatu, dantza taldeetan gazte jendea bildu, kultur etxek eraiki ... Bai, egia trantsizio garaiak ziren, batetik irten eta beste batetan abiatzeko garaiak. Eta herriz herri ematen zen giro hau, maila apalago batetan eman zen Zubietan ere; bagenuen altzo bat herri-txo honetan, gure aurrekoen aztarnek eta sentimenduek bultzata, geureak bilatzen lagundu ziguna. Horretarako zenbat bilera, zenbat elkarrengana biltze, zenbat ilunabar fresko ilargi argia lagun, Alemandegiko

atarian, patata tortila, sagardo pixka bat, Txitxardin Beltza, Gau Pasa eta horrelakoen beharrik gabe, janaria edo edaria baino garrantzizkoagoak geu ginela sentiarazten zigun giroa, xumea bezain aberatsa, elkartasuna sumatuz, ametsak loratzen has-teko jada bagenuena eskutik joaten ez utzi nahita. Egia zioen, hau dena dastatu genuen guk, eraikitzen ari ginen, ginenetik abiatuta, elkarrengana bilduta denontzat zena osatu nahian. Trantsizio garaiak... eta gaur? Zein da gaurko aldi honi emango genioken izena? Nola deitu gazteok bizi duten aldi honi? Pasatzen al diegu behar duten uste on, begirune eta maitasunik?

# Hiru hilabetez Txileko mapuche tartean bizitzen

**A**itziber Matxain eta Ametza Larrañaga hiru hilabetez izan dira Txilen. Bertara beka baten laguntzaz joan ziren eta mapuche artean bizi izan dira denbora tarte horretan. Oso bizimodu desberdina dute eta kultura eta ohiturak ia galduarik dituzte kolonizazioaren ondorioz, baina beraien nortasunaren aldeko borroka berpizten ari dela dirudi. Beraiekin egon gara bertako gorabeheraz kontu-kontari.



## Zertara joan zineten Txilera?

**Aitziber:** Alde batetik ikasketa amaierako proiektua egitera eta bestetik beste kultura bat ezagutu eta bertako jendea laguntzera. Hango Unibertsitate Katolikoak mapucheei laguntzeko elkarte bat du eta mapucheek beraien beharren arabera bertako beharrei erantzuko proiektu bat dute antolatuta.

**Ametza:** Nik proiektua egina nuen eta hura ezagutzera joan nintzen.

## Beka bati esker joan zineten. Nola lortu zenuten beka hori?

**Ametza:** Beka bat atera zuten Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Gobernuaren artean, aurkeztu eta hartu egin zituzten. Pertsona bakoitzak lan jakin bat zuen egiteko, perito agronomoak, irakasleak... joan ginen.

## Zer lan egin duzue beraiekin?

**Aitziber:** Bakoitza lan bat egitera joan da. Nik hasiera batean barraiek zituzten bertako fruituak aukeratu eta landaketa posible zen ala ez ikusi nahi nuen, baina horrek zentzu handirik ez zuela ikusi genuen eta eraldaketak egiten hasi ginen. Etxe desberdinetara joatean

fruitu asko zutela ikusi genuen, baina ez zuten ondo aprobetxatzen. Horregatik fruitu horiekin gauza ezberdinak egiten hasi ginen: mermeladak... Beraiek oso gustora gelditu ziren. Hala ere, zertara zoazen jakin gabe ere eskuzabalik hartzen zaituzte. Ondoren "ruca"-n erakusketa bat egin genuen egindako produktuekin eta errezetario bat ere bai jendeari banatzeko.

**Ametza:** Nik hango sendaberekin egin behar nuen lan. Azterketa eta diagnostikoa egin behar nituen, baina azkenean azterketa bakarrik egin ahal izan nuen. Mendira joan eta ea zein landare zituzten eta zertarako erabiltzen zituzten begiratzen nuen.

## Hangoak ez dira biharkoari begira egoten

### Nolakoa da hango bizimodua?

**Ametza:** Han bizimodua askoz ere lasaiagoa da. Lehendabizi barraiek ezagutzera joaten ziren etxera eta ondoren hasten ziren lan egiten. Dena mantso-mantso zihoan, bizitzeko beste mentalitate bat da, ezin duzu hemengoarekin hara joan.

## Eta beraien bizitza?

**Ametza:** Ez gara nahi bezainbeste egon eta ez da erraza nolakoa den esatea.

**Aitziber:** Pena horrekin geratu gara ez baikara beraiekin denbora gehiegi egon. Beraien egoera asko aldatzen da leku batetik bestera. Batzuk, adibidez, enpresa batzuk lanak egiten ari direnez ura kentzen ari zaizkienaren arazoa dute.

## Asko al dira mapucheak?

**Ametza:** Oso leku handia da eta zaila da esatea, baina egon garen inguruan gehienak mapucheak dira.

## Non egon zarete zehazki?

**Aitziber:** Txileko bederatzigarren eskualdean, Villarica komun hain zuzen ere eta honen barruan komunitate indigena asko daude.

**Ametza:** Txilen hamabi eskualde daude goitik behera kontatzen direnak eta gero antartida dago. Santiagotik 700 kilometrorara egon gara, hegoalderuntz. Gure eskualdea bi probintzian banatua zegoen eta probintzia baten barruan Villaricako komunitatea zegoen, eta horren barnean beste asko.

# rizketa

Gainera ez daukazu hiriaren erdialderik, etxe guztiak saka-banatuak baitaude.

## Non bizi dira?

**Aitziber:** Batzuk Villaricatik gertu daude eta Villarica nahiko turistikoa da, baina nahiko urruti bizi direnen egoera oso desberdina da. Beraien etxe tipikoak "ruca" izena dute eta oso politak dira, egurra eta lastoz egindakoak, baina gaur egun oso gutxi bizi dira haue-tan. Beste aldean bai, baina gu ibili ginen inguruan ez. Oso desberdina da herriaren ondoan bizi direnen eta besteen bizitza. Lehenengoek herrira joan eta produktuak saltzen dituztela. Herritik gertu bizi direnek argin-darra dute baina urruti bizi direnek ez eta pobreagoak dira. Beraien produktuak saltzeko aukerarik ez dute, lantzen dutenaz bizi dira.

**Ametza:** Etxeak oso txikiak dira, egurra eta txapaz egindakoak.

## Zein da Gobernuaren jarrera beraiekiko?

**Ametza:** Ez da oso ona, ez dute laguntza handirik jasotzen.

## Zer egon zarete bertako jendearekin bizitzen edo beste nonbait?

**Ametza:** "Ruca" deitzen zioten egurrezko etxe batean geunden, "Kom che ñi ruca"-n, "denon etxea" esan nahi du horrek mapucheen hizkuntzan.

Han bi aste egin genituen bertako errealitatera egokitzeko ikastaro antzeko bat egiten. Antropologa batekin egon ginen eta beraien kulturari buruz, ohiturei buruz... ikasten aritu ginen.

Ez ginen denbora guztian leku jakin batean egon; Patagonian egon ginen, gero Santiagon ere bai, iparraldeko basamortuan... Aitziber ruca-n geratu eta ni Villaricara joan nintzen bizitzera.

**Aitziber:** Beraiek ruca horretan ikastaroak egiten dituzte gauza desberdinak ikasteko.

## Nolako esperientzia izan da zuentzako? Zer ikasi duzue?

**Ametza:** Benetan ze esperientzia izan den ohartzeko denbora gutxi pasa dugula uste dut. Asko mugitu gara eta dena behar den bezala ezagutzeko ez digu denborarik eman. Hala ere, bizitza lasaiago hartzen dutela konturatu gara eta jendea beti dago laguntzeko prest.

**Aitziber:** Hango jendea oso desberdina da. Bizitzak ematen diena onartzeko prest daude momenturo. Momentuan bizi dira, gaur festa bat egiteko aukera badute egingo dute, eta biharkoa ikusiko da.

## Zein da beraien kultura eta hizkuntzaren egoera?

**Ametza:** Nik uste dut inguru horretan kultura eta hizkuntza galdua dutela. Mapudunguna da beraien berezko hizkuntza,

baina iaio galdu dute. Kaixo eta agur esaten dute beraien hizkuntzan, baina hortik aurrera ezer gutxi. Aiton-amonek agian badakite, baina hurrengo belaunaldiak ja ez daki.

"Mapu" hitzak lurra esan nahi du eta "che" k jendea; mapuchek, beraz, lurreko jendea. Mapudunguna lurreko hizkuntza da, "dungun" hizkuntza baita. Erritual batzuk mantentzen dituzte, denak elkartu eta leku sakratu batera joaten baitira. Ez dute jainko zehatz bat eta hiru lur ezberdin daudela pentsatzen dute, kosmobisioa dute. Adibidez, gaixotasun batzuk psikologiarekin erlazionatuak daudela ulertzen dute eta matxiak hauek sendatzen laguntzen diete. Matxiak hango ente erlijioso baten antzekoa da eta energiarekin lan egiteko ahalmena dute. Pertsona horrek matxia dela amesten badu, ondoren ikastaro bat egin eta matxi bihurtuko da, eta emakumezkoa zein gizonezkoa izan daiteke. Bera da goiko lurra eta beheko lurrarekin kontaktuan dagoena. Energia negatiboren bat duzun ala ez pixaren bidez aztertzen dute.

**Aitziber:** Ni joan nintzen batengana eta ez nintzen oso gustora atera. Izan ere, kanpotarrak ez zitzaizkion asko gustatzen.

## Berpizten ari da nortasuna berreskuratzeko borroka

### Borrokarik egiten al dute galdutakoa berreskuratzeko?

**Ametza:** Lehen ez, txiletarrak izan nahi zuten eta kitto; baina orain badirudi zuten konplexu hori galdu eta batzuek bere nortasuna berreskuratu nahi dutela.

**Aitziber:** Kuriositate bat ere jakin genuen. Miguel Sanz Nafarroako lehendakaria han izan zen eta beraien aldeko jarrera erakutsi zun han, bertako hizkuntzaren aldekoa. Hemen, berriz, nola dabilen ikusi besterik ez dago...



# 137.596.459 pezetako kreditu aldaketa egitea erabaki du udalak

**U**dalak urteko bigarren kreditu aldaketa onartu zuen pasa den ekainaren 26an egin zen udalbatzan. Aurrekontuan hainbat proiektu izendatu bazituzten ere, kostu-

ak zehaztu eta zenbait proiektutarako beharrezkoa izango den diru kopurua bideratuko dute bigarren kreditu aldaketa honen bidez. Guztira 137.596.459 pezeta gehituko zaizkio

urte hasiera baino lehen onartu zen aurrekontuari. Diru kopuru hau gauza askotarako bideratuta badago ere, guk garrantzitsuenak azalduko dizkizuegu jarraian.

## Euskaltegiarentzat egoitza berria

□ Etumeta euskaltegiak egoitza berria izango du datorren ikasturterako. Txaramunto azpiko lokaletan egongo dira eta egin beharreko egokitzapenen aurrekontuak eskatuta daudenez abuztua baino lehen hasi eta iraila-urrian prest egongo delakoan daude.

□ 10 milioi pezeta.



## Gizarte ekintzentzat lokal berriak

□ Udalean lekurik ez dagoela eta bi asistente sozialek eta administrazio laguntzaileak Txaramunto azpiko lokale-tara joango dira laister. Abuztua baino lehen bertan egokitzapenak egiten hasiko direlakoan daude eta iraila edo urrian amaituta egotea espero dute

□ 8.600.000 pezeta.

## Aginagako frontoia

□ Proiektua gauzatze-ko eta frontoia eraikitze-ko bideratutako dirua da eta eraikuntza lanak udara edo Sanpraxikuak pasa ondoren hasiko dira. Datorren urtea bukatzerako Aginagan frontoi berria izango delakoan daude. Aurrekontuan diru kopuru sinboliko bat jarri zuten.

□ 36 milioi pezeta.

## Eguneko zentroa

□ Aurrekontuan 10 milioi pezeta aurreikusita badaude ere, guztira 22 milioi pezetako proiektua denez kreditu aldaketa honetan diru gehiago bideratzen da. Kalezarko Udarregi zaharrean kokatuko da eta urrian lanean hasi eta martxorako bukatuta egongo delakoan daude.

□ 15 milioi pezeta.

## Bestelako proiektuak

□ Pasa den urtean burutu ezin izan ziren hainbat proiektutarako dirua ere bideratzen da: Eguzkitzaldea-Zubi-aurreneko urbanizazio proiektua, Potxoneko proiektua... Eta beste proiektu berrietarako ere bai: San Estebandik Aginaga bitarteko ur-sarea, Ugaldea industrialdeko urbanizazio proiektua etab.

## Kultur etxe berria

□ Urtea amaitu aurretik Irazu kalean Udarregi zaharra bota eta kultur etxe berria eraikitzen hasiko direla uste dute udaleko ordezkariak. Proiektua laister bukatuko dutenez, hau ontzat eman eta ondoren eraikuntzak lanak nork egingo dituen erabaki beharko da lehiaketa baten bidez.

□ 9.435.072 pezeta

ITURGINTZA

**JOSEBA ARANGUREN**

Ondo ibili festetan!

Telf: 943 36 43 64

Osasunez urratu aurtengo santixabelak!

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 37 08 78

20170  
USURBIL



Giltzak kopiatzen ditugu!

**ALDAMU**

Zapatak, Kanpinak, Kreailerak (poltsak, zamarrak, galtzak...)

Kale Nagusia, 2


Tel: 943 37 27 95

## Artzeren "Oihana auhenka" ikuskizuna liburuan eta diskoan bilduta

**A**rtze anaiek eta Xiberoako abeslariak "Lürralde Zillarra" ikuskizuna eskaini zuten pasa den ekainaren 26an Udarregi ikastolan, baina JosAnton Artze beste zerbaitegatik izan da hizpide azken egunetan. Izan ere, 1999an sortutako "Oihana auhenka" ikuskizuna liburuan eta diskoan bildu du Jazzle etxeak.

1999ko azaroaren 12an oihana Donostiara eraman zuen Joxanton Artzek, eta baso hartan entzundako naturaren eta gizakiaren hotsak diskoan gorde berri dituzte. Liburuan usurbildar olerkariaren olerkiak datoz, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez; diskoan, berriz, orduko ikuskizuna bere osotasunean: Artzeren hitzak, Axiariren ahotsa, Etxekoparren xirula eta txoriak eta Jexux Artze txalapartariaren zur hotsak besteak beste.

Diskoa zuzenean grabatu zen, baina orduko soinua finitzen lan handia egin dute estudioan. Hala ere, ikuskizun hura diskoan eta liburuan gordetzeak aldekoak eta kontra-koak ditu Artzerentzat: "Zuzenean egiten diren gauzek beste bizitasun bat izaten dute. Arnas hori orain diskoarekin edo liburuarekin ezin da konparatu, baina alde onak ere badiru. Gerorako gorde daitekeela, eta behin emana beste leku batzuetara zabaltea badagoela. Ikuskizunean,



gainera, inprobisazio asko zegoen, eta soinuen artean ez zen oreka haundirik egon. Orain, Idigorasek eta Larrañagak estudioan egindako lanari esker askoz hobeto entzuten da".

### Liburuko orriak zuhaitz eta hegazti banaren izenekin

Liburua ere oso bitxia da. Orrialdeetan zenbaki erromatarrak ageri dira, eta haien aldamenean zuhaitz eta hegazti banaren izenak datoz. Urkia, gerezia, pagoa, haritza, gaztaina eta zuhaitz askoren hostoen marrazkietan dantzan jarri dituzte Artzeren olerkiak. Zuhaitzen hostoen trazoan erzetatik hitz batzuk erortzen dira, eta beste batzuk lerrokatu, oihanean bizitako hitzak marrazki haietatik sortuko balira bezala.

Izan ere, JosAntonentzat zuhaitziek gauza asko adierazten dute, hitz egiten dute azken finean. Gizakiak zuhaitzak bezalakook dira, edota hori baino gehiago, liburuko lehenengo olerkian olerkariak dioen bezala gizakiak zuhaitzak baitira:

Geldi egonean gizakiak al dira zuhaitzak  
ala ibilian dabiltzan zuhaitzak gara gizakiok?

Liburua eta diskoa argitaratu badituzte ere ikuskizun gehiago egingo dituzte. Pasa den ekainaren 26an "Lürralde Zillarra" ikuskizuna eskaini zuten Artze anaiek eta Xiberoako kantariak Udarregi ikastolan eta uztailean Itsasun eta eta Errobiko jaialdian izango dira. Bordelen eta Paun ere hitzarturik dute emanaldia.

Josu Aranberri

Pinturas  
lon



Ondo pasa Santixabelak

943 83 09 37 ☎ 670 397504

# GALARRA GARRAIO

\* LUR ONGARRIAK  
\* ZABOR BILKETA  
\* ZISTERNA BEREZIAK

Ondo igaro festak!

☎ 37 01 46

Eguneko bazkariak  
ETXE ESTE  
JATETXEA

Ondo ibili  
USURBILGO FESTETAN!

Aginaga

☎ 943 36 27 40

# Drogamenpekotasunaren arazoa hizketagai herriko hezitzaileen artean

**A**skagintza, udalaren ekimenez, drogamenpekotasunaren fenomenoari buruzko ikerketa soziologikoa burutzen ari da. Ikerketa honek fenomenoari buruzko azterketa, diagnostikoa eta hiru urteko prebentzio plan bat garatzea du helburu komunitario mailan. Hori dela eta, hau guztia burutzeko eztabaida taldeen bitartez herriko eragile ezberdinekin biltzeko asmoa dute guztien arteko azterketa komuna egiteko. Lehenengo eztabaida taldea ekainaren 13an egin zen hezitzaileekin.

Herriko ikastetxe ezberdinetako ordezkariak bildu ziren drogamenpekotasunaren gaiaz hitz egiteko; Lanbide Heziketatik Iñaki Mujika joan zen, Udarregi Ikastolatik Mila eta Haritz Zubiaur, Hastapen Tailerretatik Arantxa Garmendia, Xabi Telle, eta Idoia eta Euskal Txokoetatik Saioa Erro eta Naiara Arriola.

Eztabaida talde honen helburua ez zen adostasun batera iristea, baizik eta gaiaren inguruan bakoitzaren iritziak jaso eta eskaerak zeintzuk diren ezagutu ahal izatea.

Topaketa, batez ere, lau galdera nagusiren inguruan bideratu zen. Saioari ekitzeko Txus Congilek honako galdera hau luzatu zien; bakoitzak, hezitzaile papera albo batera utzita, drogaren gaiaz zer pentsatzen duten. Adostasun maila handia izan zen; "droga gizarrean dagoen zerbait da, beste gauza asko dagoen bezalaxe, eta bakoitzak erabaki behar du hartu behar duen ala ez.

*Zenbait momentutan baliagarriak izan daitezke, botikak kasu, baina bestetan, aldiz, kaltegarriak ere izan daitezke neurria hartzen ez bazaio".*

## Menpekotasuna da arazoa

Neurriak non, nork eta nola jarri behar diren ere izan zuten eztabaidagai. Txusen esanetan, "gakoa edo arazoa bakoitzak marra non jartzen duen datza. Adin batzutan bakoitza gai da marra non jartzen duen kontrolatzeko. Nera been kasuan, marra arrisku lekuan jartzen dute, bere garapen psikologiko bezala. Helduek, ordea, egoera kontrolatzen duten lekuan jarri nahi dute, lasaiago geratzeko. Baina, azken finean, matematikarik ez dagoenez, hor dago gakoa; askatasun pertsonala, baina baita bakoitzaren ardua ere".

Era berean, aitortu ere egin zuten, sarri ikasleek hezitzaileek baino gehiago dakitela gai honen inguruan eta hezitzaileen ezjakintasuna nahiko handia dela. Hori dela eta, irakaslegoa heitzeko beharra ere azpimarratu zuten.

Heziketa sistemaz ere jardun zuten. Hezitzaileen arabera, "heziketa paketez josita dago, eta hainbeste daude ezin diegula guztiei heldu. Alde batetik, nahitaez eman beharreko edukiak daude gizarte presio bat dagoelako, eta, bestetik, gizarteko arazoez arduratzen diren pakete pila hori. Ondorioz, pertsona bezala hezitu beharrean, edukiak baino ez dizkiegu transmititzen".

## "Heziketa paketez josita"

Hori dela eta, gai hauek puntualki ezin direla landu iritzi zioten. Txiki-txikitatik landu beharreko gaiak dira, eta ez ikasturte zehatz batean ezta maila jakin batentzat ere. Plangintza orokor bat garatzearen beharra are ageriagoa dela azpimarratu zuten, eragile eta alde guztiak bertan inplikatur. "Bardirudi askotan honetaz guztiaz irakaslegoak arduratu behar duela, baina hor gurasoek ere paper garrantzitsua jokatzen dute eta guztion artean elkarlana bideratu behar dugu".

Beraz, eginkizunak banatu egin behar direla eta guztiak gai honetan ausartagoak izan

behar dutela adierazi zuten. Komunikazioa eman behar da, bakoitzaren funtzioak zehaztuz eta kontutan izanik errealitate ezberdinak bizi direla. Azterketa hori egin da, egitasmo orokorra egin beharko litzatekeela diote, "eta guztiak piszinara botatzeko ausardia izan".



## Sanjuan! etorri bai, baina joan ere bai

**H**alaxe da, bai, bukatu dira Kalezarko Sanjuan jaiak. Urtero bezala jai giroa izan da nagusi bi asteburutan. Udaberriko azken asteburuan gaueko dantzaldietara jende dexente gerturatu zen. Udako lehenengo larunbat eta igandean, berriz, auzoko festa izan zen nagusi.

Suziriak eskuetan hartuta Sanjuan eskean irten ziren arratsaldean. Sustrai Kolina eta Xabier Legarreta bertsolarien laguntzat baserri ibili ziren. Saizar-en bapo afaldu, Sanjuan suaren argitasunaz eta soinu txikiak lagunduta oholta gainean kopla batzuk bota eta Kaleberrin tabernaz

taberna Sanjuan! oihukatuz ez zuten umorerik galdu Sanjuan eskean atera ziren gazteek.

Sanjuan egunean, berriz, ez zen aspertzeko aukerarik izan. Auzoko gazteen arteko herri kirolak izan ziren lehendabizi, auzo bazkaria ondoren, eta sabela ondo beteta eduki arren toka txapelketan parte hartze- ra ausartu zenik ere izan zen. Azkenik, herriko trikitilarien emanaldia entzunaz eta sardina eta sagardo dastaketarekin eman zitzaion amaiera aurtengo Sanjuan jaietara. Hori bai, herritarrek festak amaitu zirela jakin zezaten suziri festa zaratatsuak ere bere tartea izan zuen.



**T**akolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen pasa den ekainaren 17an Kalezarko plazan eskaini zuten emanaldiarekin eman zitzaion bukaera aurtengo Plis, plas, txalo ta jolas egitarauari. Jende ugari gerturatu zen bertara. Abestiak alde batetik, pailazoen sortutako barre algarak bestetik, haurrek nahiz gurasoek ez zuten aspertzeko aukerarik izan. Bukaeran, indarrak berreskuratzeko, txokolata banatu zen Kalezarko plazara inguratu zirenen artean.



**M**usikak tarte zabala izan zuen herrian ekainaren 16tik 21era bitartean. Larunbatean, hilak 16, ikasturte bukaerako kontzertua eskaini zuten Zumarte musika eskolako ikasleek Oiarde kiroldegian. Kitarrak, eskusoinuak, orkestra, txistulariak, abesbatza... musika aukera zabala izan zen bertan. Kontzertu honekin gustora gelditu ez zirenek, berriz, ekainaren 19, 20 eta 21ean Zumarteko ganbaran izan ziren kontzertuetara joateko parada izan zuten.



BEREZITASUNAK  
Txerrikumea,  
Txuleta eta Arraia

Aginaga  
☎ 36 27 73

**SEKAÑA**

## Kalkos kopisteria



- ☎ Fotokopiak
- ☎ Fotokopiak koloretan
- ☎ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ☎ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ☎ Planoen kopiak (AO arte)
- ☎ Ordenadoreko lanak
- ☎ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- ☎ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea  
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55



## Usurbilgo Gazte Asanbladak antolatzen duen areto futboleko finalak

**D**atorren uztailaren 1ean jokatuko dira Usurbilgo Gazte Asanbladak antolatu duen areto futbol txapelkako azken partidak. 14 urtez beherakoetan Senden eta Benta taberna izango dira aurrez aurre, 14 urtez gorakoetan, berriz, Alperro eta Txiriboga taberna.

Azken bi hilabetetan pelotaren ordezkariak ikusteko aukera izan da herriko frontoian ostiral eta larunbat gauetan. UGAK antolatutako areto futbol txapelketan 28

talde izan dira lehian, zortzi 14 urtez azpikoetan eta hogeita lau urtez gorakoetan, eta herritarrez osatutako talde ezberdinen arteko norgehiagokak ikusmin handia sortu dute.

Haurren mailan Senden eta Benta tabernak jokatu dute azken partida. Finala zein taldek jokatu zuten erabakitzeko ligaxka antzeko bat egin zen, eta ustekabearen txapelketako gazteenak diren Benta taberna taldekoak finalera sailkatzea lortu zuten.



Helduen mailan Alperro eta Txiriboga taberna iritsi dira finalera. Alperro eta Txurruten arteko partidua oso parekatua izan zen, baina azkenean 6-5 nagusitu ziren lehenengoak. Bigarren partiduan, berriz, Txiriboga tabernak 7-5 irabazi zion Judo Team taldeari.

Azken partidak uztailaren 1ean jokatu dira gaueko 21.00etatik aurrera. Bertan erabakiko da zein taldek hartuko duen iaz txapelketa izan ziren Olasagasti eta Aston Pillaren lekukoa.



## Usurbil Herri Arteko txapelketatik kanpo

Herriko pelotariak agur esan diote Gipuzkoako herri arteko txapelketari. Lehenengo kanporaketa gairak ondoren, final laurdenetan Azkoitia izan dute aurrez aurre eta joaneko partidetan kanporaketa beren alde jartzeko moduan izan baziren ere (1-2 galdu zuten), Azkoitiako frontoian jokatu zituzten itzuliko parti-

detan ezin izan zuten garaipenik lortu. **Ibai Orena eta Jon Irazustabarrena** kadeteek 22-11 galdu zuten, **Asier Portu eta Asier Arruti** jubenilek 22-14 eta **Jabi Sancho eta Xabier Errasti** helduek 22-2. Beraz, 5-1 galdu ondoren txapelketa honetatik kanpo gelditu da Usurbil eta Azkoitia jokatu dituen finalerdiak.



### ZUMETA MENUAK (Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarrak.
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez.
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piliko piperrak haragi saltsetan.
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea 3.675 pza. (pertsoneko)



ZUMETA  
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13



## URTINEA LORATEGIA

*Lore eta lore landareak*

*Jai zoriontsuak  
herritar guztioi!*

San Esteban  
Tlf. 36 22 55



# Jokalari faltak baldintzatu ditu aurtengo eskubaloi taldeen emaitzak

**H**erriko eskubaloi taldea ez dago unerik gozoeanean. Ez arazo ekonomikoak dituztelako, ezta ixilean lan egiten duen jendea falta dutelako, jokalariek falta direlako baizik. Aurtengo denboraldia lau taldeekin nola hala pasa ondoren datorrenari begira jarri dira dagoeneko. Kadete mailan talderik ez da aterako eta jubeniil mailako nesken taldea ere desagertzeko bidean da.

Hala ere egoera beltzagoa izan zitekeen. 2. nazionaleko taldea sailkapeneko azken postuetan gelditu zen, eta horren ondorioz mailaz jeitsiko zirela uste zen, baina azkenean ez da hala izango. Datorren urtean ere hainbeste urtetan mantendu izan duten mailan jarraitzeko aukera izango dute **Joxe Martin Etxabe "Mini"** lehendakariaren esanetan. "2. nazionalean aurreneko postuan gelditu zen Arratek mailaz igotzea lortu du eta horregatik guk maila berean jarraituko dugu datorren urtean".

Talde honen denboraldia kaxkarra izan dela gaineratu digu "Mini"k. "Aurreko urteetan egindako bidea erabat hautsi da aurtengoa. Zortzi urtetan taldeko maila guztietan ibili ondoren duela bi urte prestaketa onarekin igo zen jendeak kale egin digu aurtengoa. Bost edo seik utzi egin zuten, besteak min hartu zuen... eta horren eraginez taldearen maila asko jeitsi da". Hasierako bi partidua irabazi ondoren bigarren itzulira arte ez zuten ia partidurik irabazi eta **Aitor Arruti** eta **Eneko Salsamendi** taldean sartu zirenean hobeto ibili baziren ere sailkapeneko azken postuetan amaitu zuten denboraldia.

Datorren denboraldiari begira jarrita, senior mailan bi talde-



ateratzeko asmoa dutela esan zigun eskubaloi taldeko lehendakariak. "**Jose Manzano** entrenatzaileak jokalaria gehiago nahi ditu maila honetan, eta eskubaloian ibili izan den jendea eta beheko mailatik datozenak animatzen badira 2. nazionaleko taldeaz gain, probintzial mailan beste talde bat osatu nahi dugu. Edozein kiroletan bezala garrantzitsua herriko jendeari aukera ematea da".

## Datorren urtean kadeterik gabe

Kadete mailan datorren denboraldian ez da talderik izango. Aurtengoa nahikoa ondo ibili dira ligan, kopan, berriz, jokalaria faltan ibili dira, baina taldeko gehienak jubeniil mailara igotzen direnez talde honetarako ia jokalaririk gabe gelditu dira. "Taldea ateratzeko jenderik ez dago. Batzuk futboleko, besteak eskubaloian... azkenean jokalaririk gabe gelditu gara. Orioko ikastolan eta Lasarteko Landa-berri ikastolan adin horretako jendea eskubaloira hurbiltzen saiatu gara, baina saiakera horrek ez du fruiturik eman.

*Duela urte batzuk Oriotik talde polita etorri bazen ere, orain Zarauzko eskubaloi taldera joaten dira gehienak, bai onak direnak eta bai gero kalean gelditzen direnak".*

Jubeniil mailan ez da arazorik izango. Kadete mailatik igotakoek eta aurtengoa jubeniilak izan diren batzuk osatuko dute taldea. Jokalari gutxirekin ekin zioten ligari eta hirugarren postuan amaitu bazuten ere, lesioak izan dituzte etsai eta kopan ez lehiatzea erabaki zuten.

## Seniorretan nesken taldea ateratzeko asmoa

Azkenik, jubeniil mailako nesken taldeak denboraldia nola hala pasa dutela esan digu "Mini"k. "Taldea osatu zen, baina jende gutxirekin. Batek min hartzean ordezkorik gabe gelditzen ziren eta horrela zaila da aurrean ibiltzea. Horregatik Kopan ez parte hartzea erabaki genuen". Datorren urtera begira talde hau aterako ez bada ere, senior mailan taldea ateratzeko moduan izango diren ala ez aztertzen ari dira.

## Eduardo Zubizarreta: “Ni ez joateko jendea firma biltzen ibiltzeak asko harritu nau”

**E**duardo Zubizarreta medikuak pasa den ekainaren 22an pasazuen herriko anbulategian azken kontsulta. Duela ia hiru urte etorri zen hona azkoitiar hau, eta jendea berarekin gustora bazegoen ere Roberto Balantzategi medikuak ordezkaturako du hemendik aurrera. Herritar batzuk hori gertatu ez zedin sinadurak biltzen hasi ziren, baina alferrik. Robertok berak kontatu zizkigun aldaketa honen nondik norakoak.

**Herrian sortu den zure aldeko mugimendurekin harrirituta?**

Harrirituta bai, ez baitut ulertzen zergatik sortu den horrelako zalaparta. Ikamikarik sortu gabe, ixil-ixilik joatea zen nire asmoa, baina tira.

**Zergatik alde egin behar izan duzu Usurbildik?**

Ni aldi baterako etorri nintzen anbulategi honetara. Orduan banekien plazaren jabea ez nintzela, beste bat ordezkatzera nentorren. Orain arte horrela jarraitu dut, baina Osakidetza lekualdaketak egon dira eta Usurbilgo anbulategiko plazaren jabeak Donostian beste postu bat lortu duenez niri kontratua amaitu zait.

**Ez al dizute hemen jarraitzeko aukerarik eman?**

Plaza hau hutsik gelditzean Osakidetza zerrendetatik izendatutako mediku bat etorriko da aldi baterako kontratuarekin. Bera zerrendan nire aurretik zegoenez nik orain arte egin dudana lana berak egingo du. Bera Elgoibarko anbulategian zegoen, baina lekualdatze horren ondorioz anbulategiz aldatu beharra izan du.

**Eta nor izango da herriko**



**anbulategiko plaza horren jabea?**

Oraingo ez inor ez. Hemendik urtebete edo bira oposaketak egingo dituztela diote eta orduan erabakiko da nor izango den postu honen titularra.

**Eta zer moduz herritarrekin?**

Nik uste dut ondo moldatu garela. Orokorrean jendearekin ez dut arazorik izan eta gehienekin ondo konpondu izan naiz. Arazoa zera da: kontsulta honek herritar gehiegi hartu behar izaten ditu. Kupoa haundia da, 2700 herritar etorri baitaitezke kontsulta honetara. Jende asko hartu behar izan dut eta gehienetan atzerapenak sortu izan dira.

**Kexatuak al gara usurbildarrak?**

Ez. Nik uste dut Gipuzkoa osoan antzeko jendea dagoela. Leku guztietan bezala denetik dago, baina ez da bereziki kexatua.

**Lan asko izan al duzu?**

Bai, nire ordutegitik kanpo ordu asko sartu behar izan ditut. Gauzak lasai hartzea gustatzen zait, azalpenak entzun eta azalpenak ematea

eta horretarako denbora behar da. Horren ondorioz sortu da izan dudana kexa bakarrenetako bat: kontsultara sartzeko denbora dexente zain egon behar zela. Hori konpontzeko kontsultak gutxitu genituen baina egunean bertan ezin zen ordurik hartu eta hurrengo egunean ere ez. Kontsultak hamar minuturo eman beharrean bost minuturo ematen ere hasi ginen, baina nik ezin izannuen kontsulta eramateko modua aldatu

**Eta nola konpondu daiteke hori?**

Kontsulta honen kupoa txikitzea zen irtenbide bakarra. Trashorasek bi ordu eta erdiz egiten du lan eta gaixo gutxiago hartu behar izaten ditu. Hala ere, hemendik hilabete ingurura jubilatzen denez bere ordezkoa etortzean zazpi orduko lana izango du, eta orain arte nire kontsultara etorri izan direnetatik batzuk bestera joan beharko dute. Erdiak alde batera eta beste erdiak bestera joatean arazoa konpondu daitekeela iruditzen zait.

**Josu Aranberri**

## Jauzika Peñaloscintos aldera!

**B**eti bezala hemen gaituzue Ziortza Gazte Elkarteko kideak kanpaldiaren berri emateko asmotan. Jakin badakizuenez, Errioxa aldean Cameros mendizerran kokaturik dagoen Ortigosako Peñaloscintos auzoan egingen dugu gure kanpaldia.

Ohitura den bezala, kanpaldia herriko festak amaitu ondoren hasten dugu, uztaillaren 5ean. Aurten, hala ere, badugu aldaketatxo bat: azken 20 urte ingurutan bi txanda egin izan dira, baina aurten bi txanda egin beharrean bakarra egingo dugu. Izan ere, bigarren txandarako gazteak ez dira animatu. Lehenengo txandan, berriz, 15-16 urte bitarteko 30 gazte izango ditugu jira biran. Gazte hauek ondo pasatzeko aukera ugari izango dituzte, hala nola, jolasak, "rutak", bainuak, hizketaldiak, ospakizunak, gaubelak... 15 egunez egunerokotasunetik at egoteko aukera paregabea.

Ekainaren 23an egin zen kanpaldiaren muntaia eta ahaztu baino lehen eskerrak



eman nahi genieke beren laguntza eman diguten guztiei, bai guraso, zein herriko beste gazteei. Laguntza hori gabe ezingo genukeen kanpaldia aurrera atera. Bide batez, kanpaldia kendu eta jasotzera joateko deialdia luzatu nahi genuke eta norbaitek joateko gogoia izango balu parrokira azaldu eta

beharrezko informazioa eman go zaio. Hau uztaillaren 21ean izango da, larunbatean.

Amaitzeko ez larritu egun horietan herrian gazte hauen falta somatzen baldin baduzue, ederki pasatzen ariko baitira. Agur bero bat eta bueltan ikusi arte.

Ziortza Gazte Taldea.


## EuskoTren-en zerbitzuek udarako ordutegia dute ekainaren 25az geroztik

**U**rtero bezala EuskoTrenek autobus eta tren zerbitzuen ordutegiak aldatu ditu uztailla iritsi baino lehen. Trenari dagokionez, pasa den ekainaren 18an sartu zen indarrean ordutegi berria. Orduro trenea pasako da Usurbildik jaiegunetan, eta lanegunetan, berriz, orduerdiro trenea hartzeko aukera izango du zerbitzu hau erabili nahi duen edonork. Autobus zerbitzuari dagokionez, ekainaren 25etik ordutegi berriekin dabilta Donostia eta Zumaia arteko ibilbidea egiten duten autobusak. Ordutegi hauen nondik norakoak jakin nahi dituzuenok ale honetako bigarren orrialdean dituzue ordutegi berriak.





**Ursula Zubimendi  
Urdanpileta**



19 urte

Magisteritzako  
ikaslea

# Ezber diyo?

## Ezberdinak gara eta harro gaude

**G**azteok zail daukagu. Etorkizunera begira jarri eta... iluna. Zaila ikusten da gauza. Bota dezagun begiradaxo bat gure ingurura: ikasketak, lana, bikotea, kotxea, ondo pasatzea... Beste kezkarik gabe. Hauek dira gizarte honetako gazte baten helburuak. Sistemak gazteok helburu horietara bultzatzen gaitu eta ez kasualitatez, noski. Funtsean gazte indibidualista eta kontrolatzen erraza dena bilatu nahi du gizarte honek, aipatutako helburuak betetzera bere bizitza osoa dedikatuko duen gazte bat, gazte konformista bat.

Zorionez, Euskal Herrian bizi dugun gatazkak beste gazteetatik ezberdintzen gaitu. Hala esan omen zion Madrilerako bidean atxilotuta zeramaten gazte euskaldun bati berak aukeratu ez zituen bidaikide haletako batek: "Aquí los jóvenes, al terminar los estudios, empiezan a trabajar, compran un coche, se casan, forman una familia y viven felices. Por qué os complicais la vida vosotros cuando es tan fácil ser feliz?" Hori sinestarazi nahi digute; guk sistema onartuz gero ez dugula alferrikako buruhausterik izango eta ondorioz zoriontsu biziko garela.

Baina lehen esan bezala, euskal gaztea ezberdina da. Gazte euskaldunak egunero bizi du gatazkaren presentzia (gure hizkuntza edozein egoeratan era-

bili ezina, adierazpen askatasunik eza,...) eta horrek sentipenak akuilatzen ditu, sentipenetatik pentsatzera igarotzen gara eta pentsatze hutsak ematen duen inpotentziatik egoera hobetzeko lanean hastea da hurrengo pausua. Baina beti helburua argi eta garbi dugularik: euskara, euskal nortasuna, kultura,... Azken finean, Euskal Herria. Bide honetan gazteok aurki dezakegun etsairik handiena da globalizazioa. Munduko gazteen ohi-tura guztiak berdindu nahi dituen globalizazioa, gazteok indibidualizatu nahi gaituen sistema, bizi-ereduak eurek nahi bezala moldatuta eskaintzen dizkigun gizartea. Ez da erraz honi aurre egitea, bide posible guztietatik inposatu nahi baitizkigute helburu hauek. Baina beraiek badakite (eta horregatik indibidualizatu nahi gaituzte), eta guk ere badakigu taldean sortzen dela indarra eta berdin sentitzen dutenen elkartzetik datorrela borroka.

Euskal gazteok ezberdinak gara, eta zail daukagu. Guri dagokigu gaztetasunak ematen duen indarrak baliatuz lehen gazte izan zirenen lekukoa jaso eta aurrera jarraitzea. Oztopoak-oztopo helburua garbi daukagu. Guretzat zoriontasuna askatasunak ekarriko baitu eta ezingo dizkigute beraien sasi-zoriontasun horrekin begiak estali.

Ezberdinak gara, eta ni harro nago.

Kale Nagusia, 9 USURBIL  
Tlf. 943 37 33 48  
943 37 09 13

Ondo ibili festetan!

**LABE-GOXO**  
Oritndegia - Gpzoategia

**Noaqua!!**  
H A M A B O S K A R I A

**Noaqua! Kultur Elkarteak  
Santixabel jai zoriontsuak opa  
dizkizue guztioi!**



**TXAPARTEGI HARATEGIA**

**Ondo ibili  
Santixabeletan!**

Kale Nagusia, 9  
Telf: 943 36 48 00

# Lehiaketa



Udal fototeka

**Zeri begira daude bide bazterrean dauden hauek?**

Asmatzaileen artean Bordatxo tabernan bi pertsonentzat afaria zozketatuko dugu



Egilea: Dominguez

**Irabazlea**

**Ez dago asmatzailerik**

**Saria**

Tragoxka Tabernan bi lagunentzat afaria

Nola aldatzen diren gauzak... baina leku batzuetan ez hainbeste. Argazki honi begiratu besterik ez dago. Hasieran begiratu batera zer leku den jakitea zaila izan badaiteke ere, arretaz ikusi ondoren 1967 edo 1968 urteko argazkian agertzen dena Aginagako eliza zaharra zela laister konturatuko zineten.

**T R U K E**  
**JANTZIAK**  
Santixabelak ondo pasa!  
*Festen ondoren beherapenak!*

Erdiko kalea, 2  
Tel:37 34 81

**TXURRUT**

**TABERNA**



*Giro eta musika atsegina!*  
Ondo pasa Santixabelak!  
**San Esteban kalea, 1**  
**Tel:943 36 00 80**

**R A M O N**  
**H A R A T E G I A**

*ondo bñ*  
*nerriko festetan!*

Bordaberri, 3  
Usurbil

☎ 36 29 70

*Haur jantziak*



Ondo igaro festak!

Kale Nagusia, 2 Tel. 36 59 43

**KIROLAK**



**MODA**

**Festen ondoren MERKEALDIAK**

**TELF: 943 36 65 42**

**Ondo pasa Santixabelak!**

**MIKEL**  
**IZAGIRRE**

**ELEKTRIZITATEA**

Goiz Argi etxea, 37  
Kalezar  
Telf: 943 36 50 95

## OHARRAK

- ✍ Neska eskaintzen da udaran haurrak zaintzeko. Interesatuak 943 36 43 11 telefonora dei dezakezue.
- ✍ Mahaspildegi elkartean bazkide postua salduko nuke. Telf. 943 365231.
- ✍ Chow chow arrazako txakurrak salgai. Pedigriarekin. Harrematarako deitu 943 362072 telefonora.
- ✍ Belar bolak egiteko belarra eskaintzen da garbitze aldera Kalezarren. Interesatuak deitu 6306 47119 telefonora (Iñaki).
- ✍ Urrezko pultsera bat galdu nuen herrian pasa den maiatzaren 16an. Aurkitu duenak deitu 943 36 38 22 telefonora.
- ✍ Emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Deitu eguerdietan 656719442 telefonora.
- ✍ Mundurrain garaje bateko marra saltzen da. Deitu 943 362424 telefonora.
- ✍ Txinparta sagardotegian jendea behar da, ahal bada

esperientzia duena, barran edo jangelan lan egiteko. Kurrikulumak Txinpartan utzi.

- ✍ Gitarra espainola bat dut salgai. Admira Juanita marka. Ehun bikoitzekoa eta forraturiko forro beltzarekin. Ia erabili gabea, oso egoera onean dagoena.

## Nafarroa Oinez 2001



Aurtengo Nafarroa Oinez Lodosako eta Sarlagudako ikastolen alde denez, herrian talde laguntzaile bat eratu da laguntza izan dezaten. Ikastola berria eraikitzeko 200 milioiko gastuetan murgildu direnez, herrian 300.000-400.000 pezeta lortu nahi dira. Horretarako, pikiloko piper poteak eta zainzuri latak salgai egongo dira Santixabeletan, eta baita kamisetak eta antzeko materiala ere. Bestalde, irailean bertako gurasoekin bazkari bat egingo da Aitzaga elkarlean.

Prezioa: 16.000 pezeta. Telf. 678 375 390.

- ✍ Neska bat eskaintzen da udaran haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943 361115 telefonora.
- ✍ Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- ✍ Etxe bat alokatzen dut. Interesatuak deitu 943 365617 telefonora.
- ✍ Betaurreko batzuk galdu dira anbulategi inguruan funda gris batekin. Aurkitu dituenak udaletxera eraman ditzala.
- ✍ Antxetan tabernari bat behar da astelehenetik ostiralera jantokian zerbitzatzeko. Interesatuak deitu 943 370344 telefonora.
- ✍ Urrezko eraztuna galdu nuen hilaren 15ean Kalezarko plazan. Aurkitzen duenari ordainduko zaio. Telf. 943 360643


## Pintura erakusketa



Uztailaren 1a bitartean irekita  
 Ordutegia: 18.30etatik 20.30etara  
 Jaiegunetan 12.00etatik 14.00etara

# G O G O R A T U :

BEREIZI ZURE ONTZIAK ETA SAR ITZAZU  
DAGOZKIEN EDUKIONTZIAN.



EDUKIONTZI HORIA  
bakarrik plastikozko ontziak,  
latak eta brick motako ontziak.



EDUKIONTZI UR DINA  
bakarrik kartoizko ontziak, papera,  
egunkariak eta aldizkariak.



IGLU BERDEA  
bakarrik beirazko botilak,  
flaskoak eta poteak.



Ontziak ez badituzu berzitzen, gaikako bilketa eta birziklatze sistema gelditu egiteko dira. Gogoratu: bereizi zure ontziak eta sar itzazu ondoren edukiontzian, birziklaketan aurrera jarrai dezan. Horrela, zure seme-alaben etorkizuna zainduduzu. Guztiona!.

# **LAUROK ETA LIZARDI LIBURUDENDEK**

*ikasturte berria hasterako  
zure liburuak ziurtatuko dizkizu*



Datorren urterako Udarregi Ikastolan beharko diren liburuen zerrenda daukagu, ziurtatu itzazu zure haurren liburuak bi denda hauetan uztailaren 31a baino lehenago eta %20eko beherapena egingo dizugu materialetan.

Santixabel jai alaitsuak opa dizkizuegu!